

Lasai eta goxo etxean

**Miren Azkarate
Badiola**

Koronabirusa. Besterik ez dut aditu azken ummm... utzi pentsatzen... bi hilabeteetan! Koronabirusa eta berrogeialdia eta berrogeialdia eta koronabirusa. Burua benetan eztanda egin beharrean dudala! Zer egin etxean egoerari aurre egiteko, zer ez egin etxean honi aurre egiteko, maskara bai ala maskara ez, zer erosi daitekeen, zer ezin den erosi, txakurrak kalera bai umeak kalera ez, goizean, 08:00etan yoga, 09:00etan zumba, dutxatu eta 11:00etan bilera

birtuala lankideekin (gora telelana!), bukatzean bazkaria prestatu (errezeta elaboratu bat, noski!) eta bazkaldu, haurrak siesta egiten badu (ai, egia, guraso naiz!) lan pixka bat eta bestela izorrai, 17:00etan merienda eta ondoren eskulanak, 19:00etan kuadrillakoekin pintxo-potea egiteko... Ei! Eta guraso garenak animatzaile soziokultural 24 orduz! Horrela egunero-egunero! Eta estresa? Top 10!

Eta noski, 20:00etan txalo zaparradak: gaur zergatik? Kaka, Watsappean

hamaika deialdi, eta nork ziurtatzen dit ez nabilela Guardia Zibilari txalo egiten?

Bitartean agintariak, orain pixka bat luzatuko dugu konfinamendua baina lanera joateari ez utzi, eta Polizia, ez ibili bizikletan, ezin da kirola egin eta tori isuna edo kolpe batzuk nik horrela nahi dudalako.

Utzi haurrak kalera ateratzen eta helduoi kirola edo paseotxo bat ematen, desestresatu eta deskantsatzeko besterik ez bada ere! •

Bazen behin...

Antton Izagirre

Ez dago iritzi artikulurik, telebista edota irrati programarik birusari aipamenik egingo ez dionik. Birus batek aldatu du gure egunero-ko bizimodua, nagusiki premisa ekonomikoen gainean eraikitako bizimodu egituratu eta antolatua. Birusak kaosa ekarri digu, desoreka, krisia, gure egunero-ko bizimodu estresatuan, geldialdiaren desoreka, ezerosotasuna.

Eta birus honek gure bizimoduan paradigma aldaketa ekarriko baligu? Birus hilgarria delakoan, birusak bizitza sortzaileak direla frogatuko balitz?

Darwinistek espezieen eboluzioa hautaketa naturalaren eta pixkanakako eraldaketaren gainean eraiki zutenetik urte asko joan diren arren, zientzialari gehienak lerratu dira haien uberan. Guztiek onartzen dute bizitzaren oinarrian eta ga-

rapenean bakterioak egon direla, bizitzaren sorreran oinarritzko unitateak bakterioak izan direla. Hala ere, bada galdera bat hainbat erantzunen iturburua dena: espezieen sorrera pixkanaka eraldaketaren bidez eman da ala inguruak eragindako jauzikako aldaketaren bidez? Espezie batetik besterako eraldaketa posible al litzateke aldian aldiko aldaketaren bidez? Non daude horren ebidentzia fosilak?

Galdera hauetatik tiraka, batzuek zientziaren eta gizakiaren arrazionaltasunean sakondu ordez, guztiaren jatorria jainko ahaldunen bati aitortu izan diote eta horretan darraite. Aldiz, zientziaren bidetik, ez dago dena esana. Askok uste izan dutenaren aurka, *Homo sapiens sapiens*-a ez da eboluzioaren azken katebegia.

Bakterioei izaera bikoitza aitortzen zaie: bizitzaren eragile “ongarria”, batetik,

eta gaixotasunen eragile “galgarria”, bestetik. Badira zientzialariak birusak infekzio eragileak izatez gain, zelularen barnean material genetikoan aldaketak eragiteko gai ere izan daitezkeen hipotesia defendatzen dutenak.

Gaur-gaurkoz, ebidentzia zientifikorik ez badago ere, nork esan lezake etorkizunean eboluzioaren katean birusak erabakigarriak direla frogatuko ez denik?

Nik ez dakit koronabirusak paradigma aldaketarik ekarriko duen genetikarako. Ez dakit giza espezie berri baten sorreran eragingo duen. Baina eragin digun geldialdi honek gizaki sozial berri baten aldeko hausnarketara eraman beharko gintuzke; azkenaldian areagotzen joan den gizarte indibidualista horren aurrean, gizaki soziala gailendu dadin, amaieran. •